

Idazlearen bidaideak

Lagun batek esaten zidan, azkenaldian, idazten jarri orduko, gizon bat esertzen zaiola alboan. Esaten zidan, inoiz ez diola deus esan, isilik egoten dela pantailara begira, zirkinik egin gabe, baina idazten hasi zenean aurkitu zuen askatasun horren zantzurik ez duela aurkitzen gizon hori ondoan esertzen zaionetik. Lagunak aipatzen zidan, ordenagailua itzaltzearekin bat desagertzen dela gizona, ez ziola inoiz arazorik sortu, txalorik ere ez ziola jo, baina artegatu egiten zuela bera baino zentimetro batzuk atzerago esertzen zen gizon isilak.

Inoiz ezer idazteari utzi zion galdetu nioanean, ez zekiela erantzun zidan: “Ez dakit zer eta nola idatziko nukeen ondoan inor izango ez banu. Ezingo dut inoiz jakin”.

Pertsekuzio maniak jota egongo ote zen pentsatu nuen nire kabutan, baina ez nion deus aipatu.

Goizero, irrati tertuliek adiskidetzen naute nire gorrotoekin. Azken hiru asteotan, hiru laguni entzun diet: “Hau esan eta gero ez dakit bihar hemen izanen naizen”. Eta gizon hori ikusten dut haien ondoan kaskoak jantzita, mikroa itzalita baina entzuten.

Lehenengo galdera: Itzalaren konpainiatik libre idazten duenik ba al da?

* * *

Norengatik min hartu hautazkoa dela diozue zuek, pribilegioa, eta irudi polita da, indartsua, konbintzentea, baina poema baterako egokia-goa, Euskal Herriko minaren mapa ulertzeko baino. Gainera, bertako mina urrutiko minekin konparatzea ariketa eskuindarra iruditzen zait, eskoletan, *txinito* eta *negrito*-entzako diru bilketak egiten zireneko bezalakoa.

Idazle espainolak tre-beak dira edozein gairi buruz idazten dutela ere –ziklogenesiaz, eutanasi-az edo automobilen merketzeaz–, idazketaren arau guztiak hankazgoratu, tonu



DANI BLANCO

Eider Rodriguez

Olasagarre

Agirre

pare bat igo, serio ipini eta zutabea –baita nobela ere– ETari eskaintzen amaitzeko.

Idazle jende guzti horri nork ordaintzen ote dion galdetu diot behin baino gehiagotan nire buruari –ziklogenesiari buruzko zutabea 180 euro, ETari buruzkoa 360 euro?–, baina ez naiz inoiz galdera ozenki esatera ausartu, pertsekuzio maniak jota ote nengoen

pentsa baitzezakeen norbaitek.

Bigarren galdera, isilka egitekoa: CIAk mundu osoko kazetari, idazle eta orkestra zuzendariak erosi baldin baditu –lehen komunismoaren peskizan, orain terrismoarenean–, zergatik egingo zuen salbuespena espainolekin? Eta hirugarrena, ezpainak mugitu gabe: Eta euskaldunekin?

* * *

Ados, ez gara konspirazio teoretan jausiko: ez dago CIArekin elkarlanean ari den idazle euskaldunik, ezta CESIden nomina jasotzen duenik ere, eta gutxiago garbantzua UIAren diru kutxatik ordaintzen dituenik.

Baina aspaldi honetan, malabarismo batzuetan dotore, gehienetan zabarren bitartez, zutabea zebren araldiari buruz hasi eta ETaren ankerkeriari buruz hitz egiten bukatzeko joera zabaldu egin da gurean ere, idazleari ez dagokion topiko bildumatik tira eginez.

Eta agian, eta noizbait existitu bazen, amaitu da idazleak bakarrik idazten zueneko garaia. Agian, ondoan polizia bat dutela idatziko dute lagun terroristak dituztenek. Eta besteek, susmopean ez daudenek, susmopean egon gabe idazten jarraitu nahiko dute, poliziaren konpainiarik gabe. Eta horretarako, poliziarik gabe idazten jarraitu ahal izateko, zebrei buruzko zutabea ere, ETaren kontrako kondenatxoa botako dute.

Beti baita atseginago, idazten ari zarela, ondoan, ETaren kontrako tantoak apuntatzen dituen arbitro bat eserita edukitzea, kalez jantzitako polizia bat baino. ■

Beti da atseginago, idazten ari zarela, ondoan, ETaren kontrako tantoak apuntatzen dituen arbitro bat eserita edukitzea, kalez jantzitako polizia bat baino